
Euskararen konbinazio hiztegi baterako

IBON SARASOLA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

JOSU LANDA

Ametzagaiña

Azken hamar-hamabost urtean, aitzinamendu ikusgarria izan du euskal hiztegitzaz. Nahiko bat etorriko gara gehienak inpresio horretan. Euskara hizkuntza bezala deskribatzeko lexikoak barne hartzen duen arloan, gero eta deskripzio zehatzagoak eta zabalagoak daude, eta hiztegien erabiltzaileek gero eta xehetasun/zehaztasun gehiago dituzte eskura, hitz baten aplikazio zuzen edo egokia hautatzeko tenorean.

Arlo horretan gabiltzanak ez gara gutxi —lexikografia generikoaz gain terminologian edo fraseologian ere—, baina hemen aipagai dugun prozesu horretan hiru foku nabarmentzen ahalko genituzke: Euskaltzaindia, Elhuyar Fundazioa eta UPV/EHUko Euskara Institutua¹. Egindako ekarpenen norainokoa baloratzeko orduan, ez dira soilik aintzat hartu behar argitaratu izan diren hiztegiak berak, ikerketaren eremuan planteatu diren ildo berriei ere erreparatu behar diegu.

Esan liteke azken aldian nolabaiteko paradigma aldaketa bat egon dela lexikografian —ez bakarrik euskal lexikografian, fenomeno globalagoa dela esan liteke—, eta aldaketa horren ezaugarri nagusia corpusen erabilera da: baliabide informatikoei esker, eta gero eta zabalagoak diren corpusen osatzearen eta ustiatzearen ondorioz, hizkuntzaren benetako erabilera bera da ondoren datozen abstrakzioen abiapuntua. Garai batean, lexikografoek asmatu egiten zituzten hiztegiengan ageri ziren adibide bakanak. Gaur egun, hitz bat egiazki nola erabilia izan den azaltzea da joera nagusia, normalean lexikografoak eskura izaten dituen corpusetan oinarrituta.

1. Konbinatoriaren inportantzia

Geroago konkrezio handiagoz azalduko dugu, baina hizkuntzaren sisteman bada alor deskriptibo bat (arauemailea ere bai, nahi bada), hitzen konbinatoriak soilik azal dezakeena. Eta konbinatoriak dakarrena begietara ekartzeko, modurik onena adibide zehatzak sistematizatzea eta zerrendatzea da. Garbi edukita, nolahi ere, konbinazio hiztegi batek ez diola soilik lexikoari edo semantikari eragiten, pragmatikaren edo sintaxiaren ikuspegitik ere konsekuentzia argiak dituela.

Ipin dezagun lehen adibide bat: denok baliokidetzat jotzen ditugu «diskoa plazaratu» eta «diskoa argitaratu». Euskaltzaindiaren Hiztegian (EH) begiratzan badugu, haxe da esaten zai-guna *plazaratu* hitzari buruz:

¹ Nahiago genukeen artikulu hau Pello Salaburuk ere sinatu izan balu, gure orain arteko ia proiektu guztietan bidaide eta konplize izan baitugu.

plazaratu, plazara/plazaratu, plazaratzen

1 *da/du* ad. Plazara joan; plazara eraman.

2 *da/du* ad. Jendaurrean agertu edo azaldu. Ik. **kaleratu; argitaratu**. *Eragozpenak eragozpen, plazaratu ginen Etxeparez geroz. Plazaratu duen azken liburuan.*

Gure adibideari bigarren adiera zaio egokia: «Jendaurrean agertu edo azaldu». Pentsa genezake, beraz, *ikuskitzuna plazaratu* bezala esan genezakeela *ikuskitzuna argitaratu*. Baina ez da horrela, azken hori nekez topatu ahal izango da euskarazko testu batean. Gauza bera, *arrangura plazaratu / arrangura *argitaratu* bikoteekin. Beraz, usadioari behatuz gero, itxura batean badira gauza batzuk *plazaratu* daitezkeenak, baina ez *argitaratu*. Jakina, bigarren adiera horren definizioa alda liteke edo errestrikzio deskriptiboak gehitu, eta hori da lexikografia tradizionalan segitu ohi den bidea: adiera desberdinen arteko desberdintasun semantikoak hitzez deskribatu, horretarako definizioak sortuz.

Lexikografiaren ildo tradizionalak arreta jarri ohi dio hitz baten esanahi eta adiera desberdinen arteko bereizteari, eta berorien esanahia definizioen bitartez zehazten saiatzeari. Eta ez dago gaizki, aportazio handiak egin ditu eta egiten ari da bide hori. Baina askotan kamuts gertatu ohi da. Adibidez, EHN horrela definitzen da *ezetsi* hitza:

ezetsi, ezets, ezesten

1 *du* ad. Arbuiatu, ezertan ez hartu. Ik. **gaitzetsi**. *Lurreko zorionak ezetsirik. Giza egia, gure erabateko egia, ezetsiz gero, zer lirateke egia eta gezurra?*

2 *du* ad. Ezezkoa eman, ez onartu. *Lege bat ezetsi.*

Bi adiera horietako zeinetan kokatuko ote genukeen adibide hau: —*Hori oso kasu berezia da —ezetsi zuen On Camillok*. Zaila, zinez. Seguru gaude *ezetsi* hitzaren konbinazio deskribapen bategen informazio gehigarri eta argigarria aportatuko lukeela hori bezalako auzietan.

Ez da dena erraztasuna corpusen bidezko hiztegieta. Adibidez, kontu bat da adiera jakin barentzat adibide egoki bat ematea, eta beste bat esaldi jakin bat zein adieratan kokatu asmatzea. Horrek definizio zabalagoak egitera behartzen gaitu. Milaka adibideren artean *ezagutu*-ren kasua aipatuko dugu. Horrela dator oraingoz Egungo Euskararen Hiztegian (EEH):

ezagutu (*orobat ezautu g.er.*), ezagut(u), ezagutzen **1** *du ad* gogoan zerbaiten berri izan edo zerbaiten ideia eduki; norbaiten edo zerbaiten berri jakin; norbait nor den gogoan izan edo ohartu, norbaitekin halako harremana izan.

2 (*adizlagun eta kidekoekin*)

3 (*era burutua izenondo gisa*)

4 aitortu, onartu.

5 *ezin ezagutuzko* ezin ezagut daitekeena.

Hots, argi dago definizioaren arabera *ezagutu*-k gaztelaniazko *conocer* eta *reconocer*-en alor semantikoak betetzen dituela. Adibidez, esaldi hauetan:

Joanena beste bataiorik ezagutu ez arren.

Filosofiak ezin du erlijioa definitu gizartean duen eragina ezagutu gabe.

Proposatzen dugun hiztegi mota berri honen arabera, honek izan behar luke *ezagutu* kontzeptuaren definizioa: hitz hori agertzen den testuinguruaren multzoa, ageri diren konbinazioak sintak-

tikoki eta semantikoki sailkatuta eta multzokatuta. Gure ustez, eta eskuartean ditugun baliabideak probestuz, arrazoizkoagoa litzateke errestrikzio horiek beste modu batez ere adieraztea: hitz bat praktikan zer beste hitzekin konbinatzen den erakutsiz, konbinazio horiek corpusetan zer testu-
gurutan ageri diren bistaratuz.

Esan gabe doa, bi bideak ez daude kontrajarriak, eta elkarren osagarri dira. Batek ez du bes-
tea kentzen. Lexikografoa saia daiteke, eta saiatzea komeni da, desberdintasun semantiko eta kon-
tzeptual horiek modu abstraktuan deskribatzen. Baina aldi berean, ukaezina da sarritan egiazko
erabilera ikusteak askoz informazio zehatzagoa eta praktikagoa eskaintzen duela.

Adibideak ugariak izan daitezke:

gosea ase / gosea berdindu
*aldarrikapena ase / aldarrikapena *berdindu*

arriskua urrundu / arriskua uxatu
*helburua urrundu / helburua *uxatu*

gorputz nekatu / gorputz ahitu
*ibilera nekatu / ibilera *ahitu*

Baina badira ustez sinonimoak diren hitzak konbinatuz, esangura desberdinak sortzen diren
kasuak, ugariak hauek ere:

gazteriaz arduratu / gazteriaz kezkatu
abesbatzaz arduratu / abesbatzaz kezkatu (bi gauza diferente)

prozesua indartu / prozesua azkartu
arnasa indartu / arnasa azkartu (bi gauza diferente)

errua onartu / errua aitortu
barkamena onartu / barkamena aitortu (bi gauza diferente)

jendetza batu / jendetza bildu
opariak batu / opariak bildu (bi gauza diferente)

Horrek garamatza «belarria»ren edo «sena»ren auzi ez beti behar bezain eztabaidatura. Garbi
dago hizkuntzaren erabiltzaileek hitz segida batzuk bestetzek baino hobe hartzen dituztela, kate
horietan dauden hitzak —hiztegi tradizionalen arabera— elkarren trukagarri izanagatik ere. For-
mula batzuek funtzionatu egiten dute, eta bestetzek ez.

Har dezagun *duda* eta *zalantzaren* arteko ustezko baliokidetzak. Inor gutxik esango du sino-
nimo petoak ez direnik. Hitz soil bezala hartuta, erabiltze tasa handikoak dira biak. Orotariko Eus-
kal Hiztegiaren (OEH) antzeko luzera dute bi sarrerek, eta baita EEHn ere. Baina, beste hitz batzue-
kin konbinatzen hasten direnean, aldatu egiten da kontua:

duda-mud(et)an (210)²
zalantza-balantz(et)an (9)
zalantza-malantz(at)an (3)

duda izan (13)
zalantza izan (111)

² Besterik adierazi ezean, artikuluan aipatuko diren agerpen kopuru guztiak Egungo Testuen Corpusetik (ETC) hartuak dira.

dudan jarri (339)
zalantzan jarri (42)

Ez zaigu iruditzen kopuru diferentzia horiek huskeria direnik. Agian usadioaren inertziari dagozkio kasu askotan, nork jakin gaur-gaurkoz. Baina gaude, horretarako ere balioko lukeela konbinazio hiztegi batek, hau da, «belarria» deitu izan den horrek nola funtzionatzen duen hobeki deskribatu ahal izateko.

Hiztegiek ez dute askotan hitz berririk deskubritzen, aurrez dakizkigunak gogorarazi baizik. Gauza bera, edo areago, esan daiteke balizko konbinazio hiztegi bati buruz. Balio arauemaile edo deskriptibotik harago doan funtzio bat da. Testu bat idazten edo itzultzen ari garenean, maiz gertatu ohi da hitz bat —edo hitz konbinazio bat— «mihi puntan» izatea, baina une horretan ahora edo burura ez etortzea. Horretarako ere balio dute hiztegiek, idazleen eta itzultzaileen lagungarri, eta begien bistakoa da konbinazio hiztegi batek horri buruz egingo lukeen aportazioa.

Gehienetan, hiztegiek ez diote hiztunari informazio berririk ematen, aurrez zekiena «gogorazi» baizik. Areago, sarritan ohiko inpresioa da hiztegiek ematen duten informazio hori ez zela beharrezkoa, erabiltzaileek «natural» edo «ebidente» jotzen dutelako, areago adibideak irakurri ostean. Justu kontrakoa da, gure ustez. Hitzek beste hitz batzuekin, eta ez beste batzuekin, konbinatzeko ageri duten kasuistika deskribatzea eta sistematizatzea aportazio aparta izan liteke erabiltzen den hizkuntzaren kalitaterako.

Har dezagun sinonimoen esparru —zenbaitetan— labainkorra. Iritzi aski orokorra da, gaur egun euskararako dauden sinonimo hiztegiak aski kamutsak direla. Batik bat, euskalkien eta hizkeren araberako aldaketan oinarritu ohi dira, eta ez hainbeste kontzeptuen hurbiltasunean. Gure ustez, antzeko testuinguruetan zein hitz erabiltzen diren ikusita, beste hurbiltze efikazago bat izango genuke sinonimoen hiztegi baterako ere, hots, arrazoi estilistikoengatik edo funtzionalengatik hobe letorkigukeen hitz konbinazio bat detektatu eta erabili ahal izateko.

Hitzen definizioaz gain, hitzaren «kalitatea» edo «balioa» neurrian jartzeko ere jakingarria da hitz jakin bat nork erabiltzen duen. Ez da berdín hitz jakin bat halakok edo halakok erabiltzea. Alde horretatik, inportantea deritzogu adibide bakoitza nork eta non erabilia izan den azaltzeari.

Esan daiteke euskal hiztegi gintzaren hutsune handietako bat —eta autokritika bezala ere uler bedi— adberbioena dela. Adibidez, hiztegi guztietan jasota dago *gertu* adberbioa, baita *gerturik* ere, eremu semantiko oso desberdinekoak bi-biak. Baina, adibidez, *gertutik* adberbioak ez du sarrera berezirik gure hiztegietan. Eta, konbinatoriak baino azaltzen ez duen bezala, semantikoki oso gauza diferenteak dira *gertu ikusi* eta *gertutik ikusi*. Lehenago aipatu dugun ustezko konbinatoria librearen kontrako adibide asko inbentaria daitezke adberbioetan ere:

galdera sakonak / gogoeta sakonak
 **sakonki galdetu / sakonki gogoetatu*

Hiztegi guztiek esango digute *zehatz* eta *konkretu* sinonimoak direla, baina *zehatz adierazi* edo *zehazki adierazi* hitz konbinazioen agerpenak aski sarriak diren bezala, agerpen bakar bat ere ez dugu topatu *konkretu(ki) adierazi* konbinaziorako.

Baina hitzen konbinatoria, guztiz librea ez denez, hizkuntzaren bestelako sail batzuekin elkar lotzen da, morfo-sintaxiarekin konparazione. Kasu bat aipatzearen, «singularra/plurala» auzia dago. Aditz askok singularreko nahiz pluraleko osagaiak izan ditzakete (*amets bat izan / ametsak*

izan), baina ez da inola ere hala aditz guztietan. Har dezagun *txirikordatu* aditza; ezinbestean, bere osagai batzuk pluralean eta beste batzuk singularrean hartuko ditu:

hatzak/ideiak/gaiak/hitzak txirikordatu (pluralean)
ilea/lastoa/lokarria/artilea/sugea txirikordatu (singularrean)

2. Joerak eta planteamenduak

Konbinazio hiztegiaren sorrerak erabat aldatu du hiztegiak eratzeko modua. Hiztegi-tza tresna berri honen bidez hitzak edo lemak konbina ditzakegu halako eran non lortu baititza-kegu unitate lexiko, semantiko eta pragmatikoak. Konbinazio lexiko horiek hiru mota nagusitan bildu ditzakegu.

Lehenengo motan lokuzioak eta modismoak ditugu. Mota konplexuak dira, horien esanahia ez baita osagaien konbinaketaren ondorio soil. Adibide bat *hotz eta motz* izan daiteke, non erreferentziak ez baitu zer ikusirik tenperaturarekin edo luzerarekin: *Ez zen gizonaren eta herrien alderdi bat ere Lafitte hotz eta motz utziko zuenik*.

Bigarren motan «kolokazio» deituak ditugu. Kolokazioak hitz multzoak dira, hiztunen erabilerak halako berezitasun bat eman dienak. Gorago aipatu ditugun *gosea berdindu* eta *arriskua uxatu*-ren kasua bete-betean kokatzen da kolokazioen arloan. Argi dago kolokazioen garrantzia: kolokazioen erabilerak erakusten digu azken batean aurrean dugun hiztunak berezkoa duen hizkuntza ala guztiz euskaldundu gabeko baten aurrean gauden.

Hirugarren motan, «errestrikzio lexikoak» ditugu. Bistan da hitz konbinazio ugari egin egin daitekeela, baina bistan da orobat konbinazio asko daudela ezinezkoak direnak hizkuntzaren erabileraren aldetik. Kostata esango du hiztun batek *zeru ausarta* edo *zubi errukiorra*, ezpada poesia mota berezi batean. Baina edozein hiztunek onartuko luke *itsasontzi baten sabelean etorri nintzen ni hona* bezalakoak.

Aski modu sistematikoan azter ditzakegun konbinazio lexikoak —hots, hizkuntzaren osagai objektibo legez—, ez dira soilik lokuzioak edo esamolde bereziak, fraseologiaren edota terminologian alorrean aztertu ohi direnak. Sistema linguistikoak ustez ahalko liratekeen konbinazioetan errestrikzio asko eta asko ezartzen ditu, aurrez pentsa genitzakeenak baino askoz ere gehiago. Aditz trantsitibo batek zein osagai izan ditzakeen, adberbio batek zein aditz modifika ditzakeen, edota adjektibo baten eta izen baten artean zein konbinazio harreman praktiko dagoen.

Horiek horrela, eztabaidagai izan da beti zer den kolokazio bat eta zer den errestrikzio lexiko bat. Dena dela, hurbilketa gisa esan dezakegu hauek direla kolokazioen eta errestrikzio lexikoen ezaugarriak. Lehenik, konbinazio lexikoak dira, baina lexemak esaten digu zein piezarekin konbina daitekeen. Bigarrenik, erabilerak errepikatuak, eta ez beste ezerk, eusten dio delako konbinazioari. Hirugarrenik, eta zertzelada honek garrantzia berezia du hiztegiaren, kolokazioak ezin dira beti eta automatikoki hizkuntza jakin batetik beste batera itzuli, eta, hortaz, lan berezia eskatzen diete hiztegiileei.

Kolokazioen eta errestrikzio lexikoen alorrean, bi joera nagusi aipa daitezke. Lehenkoa maiztasunetan oinarrituriko konbinatoria da; bigarrena, deskribapen formaletan oinarriturikoa. Lehenengo joeran *The BBI combinatory dictionary of English* hiztegia izan zen lehena. Bigarren joeran

oinarrituriko lan garrantzizkoena *Dictionnaire explicatif et combinatoire du français contemporain*, lau liburukitan publikatu zena 1984 eta 1999 urteen artean. Nolanahi ere, geure gusturako, gehien segitu beharreko erreferentziak bihurtu dira Ignacio Bosqueren gidaritzapean argitaratu ziren *Redes* (2004) eta *Práctico* (2006) konbinazio hiztegiak.

3. Orain arteko pausoak

Euskal konbinatoria lexikoan dena ez da desertu. Orain artean ere, aitzinlanak egin izan dira, eta euren aportazioa aintzat hartzekoa da dudarik gabe, abiapuntu bezala besterik ez bada ere.

Tradizio handiena duen alorra, lokuzio, esapide idiomatiko eta terminologiarena izan da gure artean. Horrek orain arte eman duenaren emaitzaren isla modura, har dezagun Elhuyar-en *Euskara-gaztelania hiztegia*, orain arte egindako lanaren adibide paradigmatico bezala³. Hiztegi horretan, hitzen konbinazio lexikalizatuei dagokienez, «lexiak» (*bigarren eskuko*, *esku-pilota*, *esku-hartze...*) eta «lokuzioak» (*eskuz aldatu*, *esku beteka*, *eskutik irabazi...*) bereizten dituzte. Hauek dira gaur arte euskararako detektatu dituztenen kopuruak: 7.397 lexia eta 5.161 lokuzio.

Esapideez edo lokuzioez haragoko konbinazio libreagoak zerrendatzen egindako lehen saioa, guk dakigula, Ereduzko Prosa Gaur (EPG) corpusean egin zen, webeko kontsulta tresnan «Hitz multzoak» izeneko atalean. Bertan, corpuseko bi eta hiru hitzeko multzo guztiak erauzi ziren, inolako murrizketarik gabe. Orduko hura baliatuta txertatu izan dira EEHko zenbait sarreratan ageri diren konbinazio multzoak. Saio horrek muga eta ments nabariak ditu: soilik hitzak hartzen ditu aintzat (ez lemak), eta hitz guztiei balio bera ematen die, inolako ponderaziorik gabe.

Egungo Testuen Corpusean (ETC) beste saiakera bat egin da, oraingoan lemetan oinarrituta eta ponderazio neurri batzuk aplikatuta, kategoria gramatikala ere kontuan hartuta. 186 milioi testu hitzeko corpus baterako 3.222.771 hitz bikote bereizi dira. Kontsulta interfazeaz hitz bakoi-tzaren barruan ematen da hitz hori ageri deneko konbinatoria guztia, eta posible da emaitza iragaztea, kategoriaren eta kokapenaren arabera. Baina tresna horrek ere muga garbiak ditu: bi hitzetik gorako konbinaziorik ez da ageri, eta lemei soilik egiten zaie jaramon (esate batera, *esku hartu* konbinazioa ageri da, baina bere baitan bereizi gabe hauek denak bilduta: *esku hartu* bera, *eskuz hartu*, *eskutik hartu*, *eskuan hartu...*).

Azken aldiko beste ahalegin azpimarratzekoa Elhuyar-en Web-corpusean atariarena⁴ izan da. Horko «Hitz-konbinazioak» atalean, euskarazko corpus elebazarretik automatikoki erauzitako bigramak kontsulta daitezke. Hiru kategoria-konbinaziotako bigramak erauzi zituzten: «izena + aditza», «izena + izena» eta «izen + izenondoa». Neurri estatistiko batzuen arabera ordenatzen da emaitza, eta konbinazioen testuinguruak ere bistaratu daitezke. Hauek dira detektatutako hitz konbinazioen kopuruak: «izena + aditza»: 71.550, «izena + izena»: 33.759, «izen + izenondoa»: 27.931. Tresna horretako egileek gerora egin dute bestelako garapenik; adibidez, «izenlana + izena» konbinazioa kontsideratuta eta murrizketa morfosintaktikoak aplikatzen.

³ https://hiztegiak.elhuyar.eus/eu_es/

Eskerrak eman nahi dizkiogu Elhuyar-eko Klara Ceberio Berger-i, adietsuki helarazitako datuengatik.

⁴ <http://webcorpusak.elhuyar.eus/>

Oraingoan Antton Gurrutxagaren eskuzabaltasunari zor dizkiogu datuak.

4. Proposamenaren azken zertzeladak

Euskararako konbinazio hiztegi batek nolakoa behar lukeen modu apur bat praktikoagoan go-goetatzera ausartuko gara, azkenik. Gure ekosistema hurbilean izandako esperientziek eta testuiguru globalagoan dauden joerak aintzat hartuta, hauexek ikusten ditugu abiapuntuko irizpide nagusiak:

- Euskarria elektronikoa izango da. Alegia, interneten soilik argitaratuko litzateke. Ez soilik horrelako lan bat paperera eramatea astakeria ekonomikoa litzatekeelako, baizik eta edukiaren muntak berak hori duelako zabaltzeko bide egokiena: behar besteko hedadura izango ahal lukete sarrerek, eta hitzen arteko harremanak eta dependentziak modu egokigoan bistaratu ahal izango lirateke hiperresteken bitartez.
- Adibide guztiak nork edota non argitaratuak izan diren zehaztea inportantea da zeharo. Gorago ere aipatu dugu autoritatearen figurari, ereduzkotasunari, ematen diogun pisua.
- Begien bistakoa denez, gure giza ahalmena, lexikografiari dagokionez, mugatua da. Gurean, pentsaezina da horrelako proiektu bat gauzatzeko hamabi laguneko talde bat osatu ahal izatea, eta haiei soldata duin bat ordaindu ahal izatea. Alde horretatik, beharrezkoa izango da alor horretan orain arte jardundako eragileen arteko parte hartzea, adostasuna eta elkarlana.

Erreferentziak

- Benson, Morton, Evelyn Benson & Robert Ilson. *The BBI combinatory dictionary of English: a guide to word combinations*. John Benjamins Publishing Company, 1986.
- Bosque, Ignacio. *Redes. Diccionario combinatorio del español contemporáneo*. SM, 2004.
- Bosque, Ignacio. *Diccionario combinatorio Práctico del español contemporáneo*. SM, 2006.
- Elhuyar Fundazioa. *Euskara-gaztelania hiztegia*. Elhuyar, 2019 [<https://hiztegiak.elhuyar.eus/>].
- Elhuyar Fundazioa. *Web-corpusen ataria*. Elhuyar, 2013 [<http://webcorpusak.elhuyar.eus/>].
- Euskaltzaindia. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Euskaltzaindia, 2019. [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&Itemid=410].
- Mel'čuk, Igor *et alii*. *Dictionnaire explicatif et combinatoire du français contemporain*. John Benjamins Publishing Company, 1984-1999.
- Mitxelena, Koldo *et alii*. *Orotariko Euskal Hiztegia*. 6. argitaraldia. Euskaltzaindia, 2019. [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ohberria&Itemid=413].
- Sarasola, Ibon. *Egungo Euskararen Hiztegia (EEH)*. EHU/UPV, Euskara Institutua, 2019. [<http://www.ehu.eus/eeh/>].
- Sarasola, Ibon, Pello Salaburu & Landa, Josu. *Egungo Testuen Corpora (ETC)*. EHU/UPV, Euskara Institutua, 2013. [<http://www.ehu.eus/etc/>].
- Sarasola, Ibon, Pello Salaburu & Landa, Josu. *Ereduzko Prosa Gaur (EPG)*. EHU/UPV, Euskara Institutua, 2007. [<http://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>].